

BILBOKO UDAL MUSIKA BANDAK NORTASUN MUSIKALAK AZTERTUKO DITU 2025-2026 DENBORALDI BERRIAN, "PROFILAK" IZENBURUPEAN

- Hamazazpi kontzertu izango dira irailaren eta apirilaren artean, eta musika-aniztasuna nortasunen isla gisa ospatuko dute, agertoki enblematikoetan, hala nola Euskalduna Jauregian, Arriagako J.C. Kontserbatorioan, Azkuna Zentroan, Arriaga Antzokian eta Joan Santuen Elizan. Musika sinfoniko garaikidea, ahozko jazz eta euskal sorkuntza landuko dituzte, besteak beste.

- Kanpaina berriaren estreinaldia berritzailea izango da: irailaren 14an Kanaria Handiko Las Palmaseko ALFREDO KRAUS Auditorioan, Gran Canaria Wind Orkestraren eta Kanaria Handiko Musika Banden Federazioaren laguntzarekin.

- Hamarkada batez bandaren buru izan ondoren, José R. Pascual-Vilaplanak zuzendari artistiko gisa amaitu du bere etapa, eta zuzendari gonbidatu nagusi gisa jardungo du, gonbidatutako hamar batutari bide emanaz. Horien artean aipatzekoak dira Virginia Martínez, Miguel Romea, Miguel Etchegoncelay edo Martín Baeza Rubio, baita Nicolás Serrano Valdizán bilbotar zuzendari gaztea ere, Bilbao Musikaren Nazioarteko Zuzendaritzaren III. Sariaren irabazlea.

- Iñaki Alberdi, Gurutze Beitia, Noa Lur, Ainara Ortega eta Sergio Carolino artistek ahots eta estilo berriak ekarriko dituzte denboraldira, eta hiru estreinaldi absolutu izango ditu. Gainera, banda-literaturan garrantzi handia duten bi konpositore garaikideren lanak estreinatuko dira estatu mailan, hala nola Chen Yi txinatarrarenak edo Lindsay Bronnenkant iparramerikarrarenak.

(Bilbo, 2025eko uztailaren 15ean).- **Itziar Urtasun** Bilboko Udaleko Berdintasuneko eta Jaietako Zinegotziak eta Bilbao Musikako Zuzendaritza Kontseiluko presidentek, **José R. Pascual-Vilaplana** Bilboko Udal Musika Bandako zuzendari gonbidatu nagusiarekin, **Iñaki Urkizu** zuzendariordearekin eta **Ana Madariaga** Bilbao Musikako gerentearekin batera, Bandaren kontzertu-denboraldi berria aurkeztu dute gaur goizean Bilboko Udaletxean. Oso denboraldi berezia da; izan ere, Muroko maisuak, hamarkada batez bandaren buru izan ondoren, bere etapa zuzendari artistiko gisa amaitu du. Hala ere, Pascual-Vilaplana arduratu da 2025-2026 denboraldiaren diseinua koordinatzeaz, eta bera izango da Zuzendari gonbidatu Nagusia.

Hainbat hizkuntza, genero eta estilotan murgiltzen den programazioarekin, musikaren irakurketa plurala proposatzen du, gure gizartean elkarrekin bizi diren identitate anitzen isla gisa. **"PROFILAK"** denboraldiak hamazazpi hitzordu biltzen ditu 2025eko irailetik

2026ko apirilera bitartean. Hamasei ohiko eta gertuko agertokietan izango dira: Euskalduna Jauregia (8), J.C. de Arriaga Kontserbatorioa (5), Azkuna Zentroa (1), Arriaga Antzokia (1) eta Joan Santuen Eliza (1). Inaugurazio-eguna berritzailea izango da, **irailaren 14an** izango baita, leku berezi batean: Las Palmaseko **ALFREDO KRAUS auditorioan**, **Gran Canaria Wind Orchestrarekin** eta **Kanaria Handiko Musika Banden Federazioarekin** lankidetzan.

Virginia Martínez Fernández, Miguel Romea Chicote, Martín Baeza Rubio, Carlos Garcés Fuentelsaz, Andrea Gasperin Alberto Roque, Txemi Etxebarria Urzain, Miguel Etchegoncelay, Miquel Rodrigo i Tamarit eta **Nicolás Serrano Valdizán** bilbotar gaztea, Bilbao Musika Zuzendaritzaren Nazioarteko III. Sariaren irabazlea, izango dira denboraldi honetako hamar batuta gonbidatuak. Oholtzan **Iñaki Urkizu Kerejeta** zuzendariordeak hirutan eta José R. Pascual-Vilaplana lautan lagunduko diete. Zuzendari Titular gisa amaitu ondoren, Zuzendari gonbidatu Nagusia izango da Muroko maisua. Bakarleri gisa, ospe handiko artistak arituko dira, hala nola **Iñaki Alberdi** (akordeoia), **Gurutze Beitia** (aktorea), **Noa Lur** eta **Ainara Ortega** (ahotsa), eta **Sergio Carolino** tubista portugaldarra.

Interpretatuko den erreperitorioaren artean, Bilboko Udal Musika Bandak hiru erabateko estreinaldiak egingo ditu: denboraldi honetarako hautatutako **Juan Cubillas Musikeneko** ikaslearen konposizioa, **Federico Jusid** argentinar konpositore ezagunaren "Bidaia" obraren bandarako egokitapena eta Bandaren 130. urteurrena ospatzeko "**Areatza**" izeneko obraren estreinaldia, **Gabriel Erkoreka** bilbotar konpositore ospetsuak egina. Gainera, banda-literaturan garrantzi handia duten bi konpositore garaikideren lanak entzun ahal izango dira Estatu mailan: **Chen Yi** txinatarrarenak edo **Lindsay Bronnenkant** iparramerikarrarenak.

Bilbon zikloa **irailaren 19an**, ostirala, hasiko da, **Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaon**. "Sustraidun musika" izeneko kontzertuan, Iñaki Urkizuk hartuko du batuta. Kolorez betetako bidaia proposatuko du Bandak, Marquina, Pierné, Balmages, Van McCoy eta Márquezen lanekin, erritmo latinoekin, melodia mediterraneoekin eta kultura arabiar zein afrikarreko oihartzunekin.

J.C. de Arriaga Kontserbatorioan bost kontzertu izango dira. **Urriaren 17an**, "Bertsoa eta sugarra" izeneko programarekin egingo du debuta gonbidatutako zuzendari moduan **Nicolás Serrano Valdizán** bilbotarrak. Guridi, Bert Appermont, Ida Gotkovsky eta David Rivasen musika izango du oinarri, tradizio euskalduna eta egungo lengoia musikala uztartzeko. **Azaroaren 28an**, **Carlos Garcés Fuentelsazek** zuzenduko duen "Sustraiak" kontzertuak emozio unibertsalera eramango gaitu, Khachaturianen epikatik hasita, Óscar Navaroren argitasuneraino. **Abenduaren 12an**, "Itsasoaren profilak" izango da entzungai **Andrea Gasperinen** zuzendaritzapean: Adam Ferrero, Porrino eta Hidasen lanek itsas paisaiak iradokiko dituzte. **Urtarrilaren 30ean** izango da **Bilbao Musikako X. Zuzendaritza Topaketaren** amaierako kontzertua, **Alberto Roque** irakaslea eta **Pascual-Vilaplana** bera zuzendari izango direlarik. **Martxoaren 20an**, ostirala, **Miguel Etchegoncelayren** gidaritzapean, "Egusentiarri begira" programarekin emango zaio

amaiera agertoki honi; Bronnenkant, Piazzolla, Ravel eta Kosmickiren lanek osatuko dute egitaraua.

Azaroaren 16an, igandez, **Arriaga Antzokiak** hitzordu bakarra hartuko du, baina oso esanguratsua: “Argiak eta elezaharrak”, **Virginia Martínez Fernández**en zuzendaritzapean. Ticheliren, Yagisawaren eta Cesariniren musika lagun, programak mito pertsonal eta kolektiboak argituko ditu, adierazkortasunez betetako erreperitorioaren bidez.

Denboraldiaren zatirik handiena **Euskalduna Jauregian** garatuko da, eta zortzi kontzertu eskainiko dira bertan. **Urriaren 5ean**, igandea, hasiera emango zaio zikloari “Bidaia” izeneko kontzertuarekin, **Pascual-Vilaplanaren** zuzendaritzapean eta **Iñaki Alberdi** akordeoi-jotzailea bakarlari lanetan. **Juan Cubillasek** idatzitako “Guerras cántabras” obra estreinatuko da, eta Chen Yiren “Wind”, Asins Arbóren “Mare Nostrum” eta Federico Jusiden “Bidaia” interpretatuko dira. **Azaroaren 2an**, “Miszelanea” kontzertuak, **Martín Baeza Rubioren** zuzendaritzapean, Espainiako banda eta musika lirikoaren maisulanak errepasatuko ditu, Wagner eta Fallari keinua eginez. **Abenduaren 20an**, “Gabonetako esentziak” izenburupean, **Gurutze Beitia** narratzaile eta Pascual-Vilaplana zuzendari izango dira, Tchaikovskytik Morten Lauridsenera doan emozioz beteriko ibilbidea eskaintzeko, Gabonetako klasikoekin amaituko dena.

2026 urteari **urtarrilaren 18an** emango zaio hasiera, “Sing American Songbook” izeneko kontzertuarekin, jazz bokalaren bihotzera bidaia bat eginez, **Noa Lur** eta **Ainara Ortégaren** ahotsekin, **Iñaki Urkizuren** zuzendaritzapean. **Otsailaren 15ean**, “Sentsualitatea eta mitoa”, **Miguel Romea Chicotek** zuzenduta, Rimsky-Korsakov eta Óscar Navarroren unibertso musikalera hurbilduko gaitu. Astebete geroago, **otsailaren 22an**, “Bihozkadak” programarekin, **Txemi Etxebarria Urzain** gipuzkoarrak hartuko du batuta; Saint-Saëns, Julie Giroux eta John Mackeyren lanak izango dira entzungai. **Apirilaren 19an**, Pascual-Vilaplanak “Musika-hareatzak” kontzertua zuzenduko du, **Musikenerekin** lankidetzan, **Sergio Carolino** tubajole portugaldarrarekin solista moduan eta **Gabriel Erkorekaren** “Arenal” obraren estreinaldiarekin. Denboraldiari amaiera emango zaio **apirilaren 26an**, “In modo de sátira” kontzertuarekin, **Miquel Rodrigo i Tamarit** gonbidatuaren zuzendaritzapean. Palau, Asins Arbó, Ives eta Shostakovichen lanek osatuko dute umore eta erritmoz beteriko programa satiriko eta zirikatzailea.

Gainera, emozio espiritual handiko hitzordu bat izango da **martxoaren 27an**, ostirala, arratsaldeko 19:00etan, **Joan Santuen elizan: Iñaki Urkizuk** gidatutako Aste Santuko Musika programa berezia, Vélez, Marquina, Grieg, Melchor eta Doradoren lanekin, besteak beste, barne-bilketa, dotorezia eta edertasuna gogora ekartzeko.

“Estilo aniztasunetik haratago, 2025-2026 denboraldia musikaren indarraren adierazpen gisa aurkezten da: identitateak marrazteko, komunitatea eraikitzeko eta etorkizuna irudikatzen gaitasunaren adierazle, betiere bikaintasun artistikoarekiko konpromisutik eta gizartearekin elkarrizketan oinarrituta”, adierazi du José R. Pascual-Vilaplanak Zuzendari gonbidatu Nagusi berriak, hamaika urtez zuzendari titular izan ondoren. “Bilborentzat

ohore handia izan da José Rafaelen mailako eta mundu osoan errekonozimendua duen profesional bat izatea, eta hunkitu egiten gaitu gure hiriri lotuta jarraitzeak. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu banda zuzendu duen hamarkada luzeko dedikazioagatik, eta oso pozik gaude bere talentuaz eta zintotasunaz gozatzen jarraitzeko formula egokia aurkitu dugulako”, azpimarkatu du Itziar Urtasunek.

ORKESTRA ZUZENDARITZAREN INGURUKO TOPAKETAK – BILBAO MUSIKAKO ZUZENDARITZAKO NAZIOARTEKO LEHIAKETA SARIA

Orkestra zuzendaritzari buruzko X. Topaketen barruan, aurtengo edizioan “Bilbao Musika Zuzendaritzako Nazioarteko Saria” IV Lehiaketaren deialdia egingo da. Lehiaketa honen amaierako kontzertua **urtarrilaren 30**an izango da Bilboko **J. Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioan**. **José R. Pascual-Vilaplana** izango da topaketen zuzendaria eta koordinatzailea eta **Alberto Roque**, irakasle gonbidatua eta epaimahaiburua izango da. Alberto Roque portugaldarra **orkestra-zuzendaritzako irakaslea da Leirako Kontserbatorioan** (Portugal). Lehiaketaren azken faseko kontzertu honetan, Udal Banda hiru batuta finalistek zuzenduko dute, eta **Georges Bizet**-en “L’Arlesienne Suite Nr.2”, **Serge Lancen**-en “Cap Kennedy” eta **W. Francis McBeth** eta **Kenneth Hesketh**-en bertsioetan "Masque" entzun ahal izango dira.

LA BANDA MUNICIPAL DE MÚSICA DE BILBAO EXPLORA IDENTIDADES MUSICALES EN SU NUEVA TEMPORADA 2025-2026 BAJO EL TÍTULO “PERFILES”

- Una temporada con diecisiete conciertos entre septiembre y abril que celebra la diversidad musical como reflejo de las identidades, en escenarios emblemáticos como el Palacio Euskalduna, el Conservatorio J.C. de Arriaga, Azkuna Zentroa, el Teatro Arriaga y la Iglesia de los Santos Juanes, con propuestas que abarcan desde la música sinfónica contemporánea hasta el jazz vocal y la creación vasca.

- El estreno de la nueva campaña será novedoso: un concierto el 14 de septiembre en el Auditorio ALFREDO KRAUS de Las Palmas de Gran Canaria, con la colaboración de Gran Canaria Wind Orchestra y la Federación Gran Canaria de Bandas de Música.

- Tras una década al frente de la Banda, José R. Pascual-Vilaplana finaliza su etapa como Director artístico y ejercerá como Principal Director invitado, dando paso a diez de batutas invitadas, entre las que destacan figuras como Virginia Martínez, Miguel Romea, Miguel Etchegoncelay o Martín Baeza Rubio, así como el joven director bilbaino Nicolás Serrano Valdizán, vencedor del III Premio Internacional de Dirección Bilbao Musika.

- Artistas como Iñaki Alberdi, Gurutze Beitia, Noa Lur, Ainara Ortega y Sergio Carolino aportarán nuevas voces y estilos a la temporada, que contará con tres estrenos absolutos, además de estrenos a nivel estatal de obras de dos compositoras contemporáneas de gran relevancia en la literatura bandística como son la china Chen Yi o la norteamericana Lindsay Bronnenkant.

(Bilbao, 15 de julio de 2025).- La Concejala de Igualdad y Fiestas del Ayuntamiento y Presidenta del Consejo de Dirección de Bilbao Musika, **Itziar Urtasun**, acompañada del Principal Director Invitado de la Banda Municipal de Música de Bilbao, **José R. Pascual-Vilaplana**; el Subdirector, **Iñaki Urkizu**; y la Gerente de Bilbao Musika, **Ana Madariaga**, han presentado esta mañana en el Ayuntamiento de Bilbao la nueva temporada de conciertos de la Banda. Se trata de una temporada muy especial, ya que el maestro de Muro, tras una década al frente de la Banda, finaliza su etapa como Director artístico. No obstante, Pascual-Vilaplana se ha encargado de coordinar el diseño de la temporada 2025-2026 y será el Principal Director invitado.

Con una programación que se adentra en distintos lenguajes, géneros y estilos, propone una lectura plural de la música como reflejo de las múltiples identidades que conviven en nuestra sociedad, “**PERFILES**” agrupa diecisiete citas entre los meses de septiembre de 2025 y abril de 2026. Dieciséis tendrán lugar en escenarios habituales y cercanos: Palacio Euskalduna (8), Conservatorio J.C. de Arriaga (5), Azkuna Zentroa (1), Teatro

Arriaga (1) e Iglesia de los Santos Juanes (1). La jornada inaugural será novedosa, ya que tendrá lugar el **14 de septiembre** en un emplazamiento singular: el **Auditorio ALFREDO KRAUS** de Las Palmas de Gran Canaria, en colaboración con Gran Canaria Wind Orchestra y la Federación Gran Canaria de Bandas de Música.

Virginia Martínez Fernández, Miguel Romea Chicote, Martín Baeza Rubio, Carlos Garcés Fuentelsaz, Andrea Gasperin Alberto Roque, Txemi Etxebarria Urzain, Miguel Etchegoncelay, Miquel Rodrigo i Tamarit y el joven bilbaino **Nicolás Serrano Valdizán**, ganador del III Premio Internacional de Dirección Bilbao Musika, serán las diez batutas invitadas de esta temporada. Les acompañarán en el podio el subdirector **Iñaki Urkizu Kerejeta** en tres ocasiones y José R. Pascual-Vilaplana en cuatro, quien, tras cerrar su etapa como Director Titular, será el nuevo Principal Director invitado. En el terreno solista, participarán artistas de reconocido prestigio como **Iñaki Alberdi** (acordeón), **Gurutze Beitia** (actriz), **Noa Lur** y **Ainara Ortega** (voz), y el tubista portugués **Sergio Carolino**.

Entre el repertorio a interpretar, la Banda Municipal de Música de Bilbao realizará tres estrenos absolutos: la composición del alumno de **Musikene** seleccionado para esta temporada, **Juan Cubillas**, la adaptación para banda de la obra "**Bidaia**" del reconocido compositor argentino **Federico Jusid** y el estreno de la obra conmemorativa del 130 Aniversario de la Banda, denominada "**Arenal**" y realizada por el prestigioso compositor bilbaino **Gabriel Erkoreka**. Además, se podrán disfrutar estrenos a nivel estatal de obras de dos compositoras contemporáneas de gran relevancia en la literatura bandística como son la china **Chen Yi** o la norteamericana **Lindsay Bronnenkant**.

El ciclo en Bilbao comenzará en **Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao** el viernes **19 de septiembre** con "Música con raíces", dirigido por Iñaki Urkizu. La Banda propone un viaje colorido a través de piezas de Marquina, Pierné, Balmages, Van McCoy y Márquez, con ritmos latinos, melodías mediterráneas y ecos del folclore árabe y africano.

En el **Conservatorio J.C. de Arriaga** se han programado cinco conciertos. El viernes **17 de octubre**, "Verso y llama" supondrá el debut como director invitado del bilbaino **Nicolás Serrano Valdizán**. Con un repertorio vibrante que incluye a Guridi, Bert Appermont, Ida Gotkovsky y David Rivas, esta cita funde tradición vasca con el lenguaje contemporáneo. El **28 de noviembre**, **Carlos Garcés Fuentelsaz** dirigirá "Raíces", un recorrido musical que enlaza emociones universales desde la épica de Khachaturian hasta la luz de Óscar Navarro. El **12 de diciembre**, "Perfiles del mar", con dirección de **Andrea Gasperin**, evocará paisajes marinos con obras de Adam Ferrero, Porrino e Hidas. El **30 de enero** tendrá lugar el concierto de clausura del **X Encuentro de Dirección Bilbao Musika**, con la participación del profesor **Alberto Roque** y del propio **Pascual-Vilaplana**. Cerrará este espacio el viernes **20 de marzo**, "Contemplando el amanecer", dirigido por **Miguel Etchegoncelay**, con un sugerente repertorio que incluye obras de Bronnenkant, Piazzolla, Ravel y Kosmicki.

El **Teatro Arriaga** acogerá una única pero significativa cita el domingo **16 de noviembre**: “Luces y leyendas”, dirigido por **Virginia Martínez Fernández**. Con obras de Ticheli, Yagisawa y Cesarini, el concierto ilumina mitologías personales y colectivas a través de un programa de gran riqueza expresiva.

El grueso de la temporada se desarrollará en el **Palacio Euskalduna**, donde se ofrecerán ocho conciertos. La apertura tendrá lugar el domingo **5 de octubre** con “Bidaia”, bajo la dirección de **Pascual-Vilaplana** y con el acordeonista **Iñaki Alberdi** como solista. Se estrenará Guerras cántabras de Juan Cubillas y se interpretarán las obras Wind (Chen Yi), Mare Nostrum (Asins Arbó) y la citada Bidaia de Federico Jusid. El domingo **2 de noviembre**, “Miscelánea”, dirigido por **Martín Baeza Rubio**, repasará grandes páginas del repertorio bandístico y lírico español con guiños a Wagner y Falla. El sábado **20 de diciembre**, “Esencias de la Navidad” reunirá en escena a **Gurutze Beitia** como narradora y a Pascual-Vilaplana a la batuta, en un emotivo recorrido que irá de Tchaikovsky a Morten Lauridsen y que incluirá clásicos navideños con arreglos sinfónicos.

El año 2026 dará comienzo el **18 de enero** con “Sing American Songbook”, un viaje al corazón del jazz vocal con **Noa Lur y Ainara Ortega**, dirigidas por **Iñaki Urkizu**. El domingo **15 de febrero**, “La sensualidad y el mito”, a cargo de **Miguel Romea Chicote**, explorará el universo sonoro de Rimsky-Korsakov y Óscar Navarro. Una semana después, el **22 de febrero**, el gipuzkoano **Txemi Etxebarria Urzain** dirigirá “Corazonadas”, programa que combinará obras de Saint-Saëns, Julie Giroux y John Mackey, entre otros. Finalmente, el **19 de abril**, Pascual-Vilaplana volverá al podio con “Arenales de música”, concierto en colaboración con **Musikene** que contará con el tubista **Sergio Carolino** como solista y el estreno de “Arenal”, la esperada obra del bilbaino **Gabriel Erkoreka**. La temporada se cerrará el **26 de abril** con “In modo de sátira”, un concierto lleno de humor y ritmo dirigido por el invitado **Miquel Rodrigo i Tamarit**. El programa incluirá obras de Palau, Asins Arbó, Ives y Shostakovich, con una selección burlesca y satírica que hará las delicias del público.

La temporada incluye también una cita cargada de emoción espiritual bajo la dirección de **Iñaki Urkizu**. El viernes **27 de marzo**, en la **Iglesia de los Santos Juanes** a las 19:00h, ofrecerá un programa especial de Música de Semana Santa, con obras de Vélez, Marquina, Grieg, Melchor o Dorado, entre otros, que evocan recogimiento, solemnidad y belleza.

“Más allá de la diversidad estilística, la temporada 2025-2026 se presenta como una afirmación del poder de la música para perfilar identidades, construir comunidad y proyectar futuro desde el compromiso con la excelencia artística y el diálogo con la sociedad”, ha indicado el nuevo Principal Director invitado de la Banda, **José R. Pascual-Vilaplana**, tras once años como Director titular. *“Para Bilbao es un honor haber contado con un profesional de la talla y reconocimiento mundial de José Rafael y nos emociona que siga ligado a nuestra Villa. Agradecer la dedicación de más de una década al frente de la banda y muy contenta de haber encontrado una fórmula para seguir disfrutando de su talento y honestidad”,* ha destacado **Itziar Urtasun**.

ENCUENTROS DIRECCIÓN ORQUESTAL – CONCURSO PREMIO INTERNACIONAL DE DIRECCIÓN BILBAO MUSIKA

Enmarcado en los X Encuentros de dirección orquestal, en esta edición se ha convocado el “IV Concurso Premio Internacional de Dirección Bilbao Musika”, cuyo concierto de clausura, tendrá lugar el viernes **30 de enero** en el **Conservatorio J. Crisóstomo de Arriaga** de Bilbao. **José R. Pascual-Vilaplana** actuará como director y coordinador de los encuentros, con **Alberto Roque** como docente invitado y presidente del jurado. Alberto Roque es **profesor de dirección del Conservatorio de Leiria** (Portugal). Durante el concierto de la fase final del Concurso, en el que la Banda Municipal estará dirigida por las tres batutas finalistas, se podrán escuchar “L’Arlesienne Suite Nr.2” de **Georges Bizet**, “Cap Kennedy” de **Serge Lancen** y “Masque” en las versiones de **W. Francis McBeth** y **Kenneth Hesketh**.